



ERRETERIAKO UDALA

Gizarte Zerbitzuak

IRAGARKIA

2016. urterako gizarte zerbitzuak azpisailari dagozkien programak diruz-laguntzeko deialdia.

III Dirulaguntza lerroa: 2016-2017 ikasturtean herrian kokatutako DBH edo erdi mailako gradua duten ikastetxeetan, ikastetxeetatik, kanpoko taldeen bidez garatutako Drogomenpeketasunaren prebentziarako programak.

Gizarte Zerbitzuetako azpi-saileko Zinegotzi Delegatuak, 2016ko martxoaren 16an erabaki zuen 2016. urterako gizarte zerbitzuak azpisaileko programetarako diruz-laguntzak ematea arautzeko oinarri orokorrak zein deialdia, onartzea

Aipatutako oinarrien arabera, Gizarte Zerbitzuetako azpi-saileko Zinegotzi Delegatuak 2016ko urriaren 26ean erabaki du onartzea 2016-2017 ikasturtean herrian kokatutako DBH edo erdi mailako gradua duten ikastetxeetan, ikastetxeetatik kanpoko taldeen bidez garatutako Drogomenpeketasunaren prebentziarako programak diruz laguntzeko deialdia.

Eskabideak aurkezteko epea Gipuzkoako aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik hasita, 15 lanegun igaro arte.

Dirulaguntza lerrerako baimendutako gastua ondorengoa da:

- III Dirulaguntza lerroa: 2016-2017 ikasturtean herrian kokatutako DBH edo erdi mailako gradua duten ikastetxeetan, ikastetxeetatik, kanpoko taldeen bidez garatutako Drogomenpeketasunaren prebentziarako programak: 10.000 €

Deialdi honi buruzko informazioa interesa duen pertsona edo kolektiboek eskura dezakete Udaletxeko web orrian (www.errenteria.eus/dirulaguntzak/dirulaguntzak_2016/gizarte_zerbitzuak) gizarte zerbitzuak azpisailean, Santa Klara kalean, 18-behea (tfno 943449604; helbide elektronikoa ssociales@errenteria.eus)

Errenterian, 2016ko azaroaren 2an

Gizarte Zerbitzuak azpisaileko Zinegotzi Arduraduna

ERRETERIAKO UDALA
Gizarte Zerbitzuak



AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA
Servicios Sociales

Stua./Fdo.: Nagore Basurto Escamilla